

Errealitate soziolinguistikoaren deskribapena eta irudikatzea – Hiru aldagairekiko modeloak

Jean-Baptiste Coyos

► **To cite this version:**

Jean-Baptiste Coyos. Errealitate soziolinguistikoaren deskribapena eta irudikatzea – Hiru aldagairekiko modeloak. Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo", ASJU-Universidad del Pais Vasco, 2009, pp.193-204. artxibo-00475918

HAL Id: artxibo-00475918

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00475918>

Submitted on 23 Apr 2010

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

**ERREALITATE SOZIOLINGUISTIKOAREN DESKRIBAPENA ETA
IRUDIKATZEA –
HIRU ALDAGAIKIKO MODELOAK**

Jean-Baptiste Battistu Coyos
IKER UMR 5478 (CNRS) - Baiona
Helbide elektronikoa : jean-baptiste.coyos@wanadoo.fr

SARRERA : SOZIOLINGUISTIKA ETA ERREALITATEA – OHAR EPISTEMOLOGIKO BATZUK

« A theory is a conceptual scheme which organizes a relatively small number of propositions, which, taken together, explain a relatively wide range of human behavior (...). The initial construction of a theory *follows* the discovery of behavioral regularities, which in turn depends upon the formulation of descriptive classifications » (Cooper, 1989: 56-57¹).

Aipatzen dudan definizio hori gizarte-zientzietan aplikatzen da, giza-portaeraz ari baita. Soziolinguistikari aplikagarria da beraz, soziolinguistikak, adiera zabalean, bi ikuspegiren arteko elkarreragina aztertzen baitu : hizkuntzen erabilera eta gizarte-testuingurua, haien arteko kobariazioa. Era orokorrean, hizkuntzaren eta gizartearen arteko erlazio-tipo denak ditu aztergai, diziplinariarteko ikerketa markoan (hizkuntzalaritza eta soziologia lehenik, baina ere historia, geografia, etnologia, psikologia, hezkuntza, zientzia politikoa, literatura...).

Soziolinguistika, beste zientziak bezala, errealitatearen zati baten ulermen objektibo eta arrazoizkoa ematen saiatzen da. Errealitatea azaldu, adierazi baino lehen, eta bigarren urrats batean behar bada aztertua den errealitatearen ondorioak auresan baino lehen, deskribapena dugu. Errealitatearen deskribapena da lehen etapa. Hortarako, helburu horrendako, soziolinguistikak kategoria analitikoak sortzen ditu, eskema deskriptiboak eraikitzen ditu. Ikerketaren lehen urratsetan beraz galdera hori agertzen zaio soziolinguistikari : errealitate soziolinguistikoa deskribatu nahian nola irudikatu, errealitate hori esplikatuz eta teorizatu baino lehen ?

Testu honetan hiru elementu edo osagaiz osatuak diren modeloei, irudikapenei, eskemei interesatuko gatazkie. Triptiko horiek, nahiz modelo deskribatzaileak, nahiz modelo teorikoak, aski hedatuak dira soziolinguistikari ; hoiengatik luzea da. Esanguratsu batzuk hautatuko ditut, ohargarri batzuk.

I. SOZIOLINGUISTIKAREN AZTERGAIEN HIRU MAILAK : HIZKUNTZA, NORBANAKOIA, TALDEA / KOMUNITATEA

William Mackeyren arabera *elebitasunaren* kontzeptua hiru maila desberdinetan aztertu behar da : « Toutes ces principales dimensions du bilinguisme – distribution, stabilité et fonction – affectent l'individu, la langue et le groupe » (1976: 37). Beste era batez errana,

¹ Cooper da *follows* hitza hizki etzanetan eman duena.

elebitasuna norbanakoaren baitan, hizkuntza talde / komunitatean eta kontaktuan diren bi hizkuntza hoietan azter daiteke, bi hizkuntza erabilerak hiru eremu desberdinetako bakoitzean eragina duelako.

Mackeyek egiten duen maila bereizketa hori, nire ustez, biziki garrantzitsua da eta soziolinguistikaren ikerketa beste alorrei aplikagarri zaie. Hiru maila horiek ez ditugu nahasi behar eta elebitasunetik at soziolinguistikaren alor anitzetan aplikatu daiteke: hizkuntza-politika eta hizkuntza-plangintza, hizkuntza-ikaskuntza eta irakaskuntza, bariazio eta aldaketa linguistikoa, hizkuntzei buruzko jarrerak eta irudikapenak, etab.

Norbanakoaren ezagutza, erabilera, portaera, jarrera, irudikapen linguistikoak orok gizarte-testuinguruan gertatzen dira. Soziolinguistikaren xedea horien ulertzea da, eta horretarako, hiztunaren (norbanakoa), hizkuntzaren eta gizartearen dimentsioak hartzen ditu kontuan.

Noski «talde» (*groupe*) nozioa aski hedatua da. Ikertua den taldea familia bateko kideak izan daiteke, auzo bateko biztanleria, eskola edo klase bateko ikasle-komunitatea, enpresa bateko lankideak, adin-multzo oso bat, komunitate dialektala, herri bateko hizkuntza-komunitate osoa, Munduan zehar hizkuntza baten hiztunak beren desberdintasunean, etab.

Hirugarren aldagaia, hizkuntza bera da. Hemen ere ikerketa landa hedatua da: gizarte-aldagaiei lotua den hizkuntzaren bariazioa eta haren bilakaera, corpus-plangintza, hizkuntza-ukipena, interferentzia motak, maileguak/kalkoak, pidginak eta kreolerak, hizkuntzen sorkuntza eta heriotza (alfabeto sortzea, estandarizazioa, hiztegiplangintza, neologismoa...), etab.

Beraz, bai, sail metodologikoan **norbanakoa, taldea, hizkuntza** bereizketa hirukoitza baligarria baino behar-beharrezkoa dela erran dezakegu. Hiru ikuspuntu horietatik errealitate soziolinguistikoa begira eta uler dezakegu; gehiago ere, hiru ikuspuntu horietatik begiratu beharko genuke errealitate hori deskribatzeko, esplikatze eta ondoko urratsean teorizatze edo eragiteko.

II. BI EDO HIRU PLANGINTZA MOTA : *CORPUS PLANNING, STATUS PLANNING* ETA *ACQUISITION PLANNING*

1969an Heinz Klosssek bi plangintza mota, *corpus* eta *status planning* delakoak, bereiztu zituen *language planning* alor delakoan, hots hizkuntza-plangintzan: corpus-plangintza eta status-plangintza beraz. Kontzeptu-bereizketa hori onartua izan da eta era batez ikertzale denek baliatzen dute. Aipa dezagun adibidez Joshua Fishmanek erraten duena bere azken liburuan: «Language planning is subdivisible into two large components: status planning and corpus planning» (2006: 9).

II.1. Corpus-plangintza

Corpus-plangintzak hizkuntzaren forma bera du helburu, bereziki hizkuntzaren forma gizartearen bizi moldeari, bere beharrei moldatzeko: alfabetoaren sortzea, ortografiaren finkatzea, hiztegiak, xede berezietarako hizkuntzak, hizkuntzaren estandarizazioa, modernizazioa, etab. Gizarte-beharrei erantzuteko hizkuntza tresnatzen da. Charles Fergusonek corpus-plangintza hiru zatitan bereizi ditu² eta Cooperek oritarazten dizkigu: «The traditional primary categories are *graphization, standardization, and modernization...* In addition, I suggest a fourth major category, *renovation*» (1989: 125).

² Language development, in Joshua Fishman, Charles A. Ferguson and Jyotirindra Das Gupta (eds), *Language Problems of Developing Nations*: 27-35.

Era batez corpus-plangintzarekin Mackey-ren « hizkuntza » alorra aurkitzen dugu berriz, baina orain ekintza-eremu gisa, lantzeko material gisa, ez aztergai gisa.

II.2. Status-plangintza

Status-plangintzak hizkuntzaren funtzioak helburu ditu. Hizkuntza-komunitate batean, hizkuntzaren funtzioak eragiteko martxan jartzen diren ahaleginek plangintza hori osatzen dute : hizkuntzaren legezko estatutua, haren lekua administrazioan, justizian, hezkuntzan, ekonomian, komunikabideetan, etab. Sail hortan Mackey-ren « norbanakoa » eta « taldea », norbanakoa taldean, aurkitzen ditugu, ekintza-eremu gisa, hizkuntzaren funtzio berri sortzeko, indarrean diren funtzioak indartzeko.

Fishmanen ustez : « (...) corpus planning is full of intimations of status planning goals and aspirations. There is no (and there can be no) sharp division between these two pursuits » (2006 : 124). Corpus-plangintzaren eta status-plangintzaren bereizketa hain zehatza ez dela bistakoa da. Har dezagun irakaskuntza adibidez. Herri-hizkuntza baten irakaskuntzak tresna pedagogiak behar ditu, ortografia bat hizkuntza idatzia izan dadin. Hizkuntza hori gutxi gorabehera estandarizatu behar da ere, irakaskuntza herrixkatik at, ibarretik at, eskualdean, herri osoan hedatu behar baldin bada. Hots, hizkuntza irakatsia izateko eta irakaskuntza-hizkuntza izateko moldatua, tresnatua izan behar da. Beraz bai corpus-plangintza eta status-plangintza nahastekatuak ez baldin badira, osoki estekatuak dira eta bata bestearekin joaten da.

II.3. Acquisition planning : Jabetze-plangintza

1989an Robert Cooperek publikatu duen *Language Planning and Social Change* liburuan beste alor bat, beste plangintza mota bat emendatu zuen, « a third focus of language planning » (33. or.) : *acquisition planning*. Beraz *corpus*, *status* eta *acquisition planning* bereizten zituen (31.-34. or.). « Acquisition planning (...) refers to organized efforts to promote the learning of a language » (157. or.). Azken hori « jabetze-plangintza » edo « eskuratze-plangintza » itzuli da euskaraz. Cooperen hitzetan jabetze-plangintzak hiru helburu ditu : « (a) acquisition of the language as a second or foreign language (...) (b) reacquisition of the language by populations for whom it was once either a vernacular (...) (c) language maintenance, as in the efforts to prevent erosion (...) » (1989 : 159).

Bi arrazoi aitzinatzen zituen plangintza berri hori gehitzeko. Bat, « considerable planning is directed toward *language spread*, i.e. an increase in the users or the uses of a language or language variety, but not all planning for language can be subsumed under the rubric of status planning (...) when it is directed toward increasing the number of users – speakers, writers, listeners, or readers – then a separate analytic category for the focus of language planning seems to me justified » (1989 : 33).

Bigarrenik, « the changes in function and form sought by status and corpus planning affect, and are affected by, the number of a language's users (...). New users may influence the language through language contact », *ibid*. Beraz, haren ustez, « since function, form, and acquisition are related to one another, planners of any one should consider the others », *ibid*. Horiek lirakeke jabetze-plangintza berezi hori sortzeko arrazoiak.

Urranago status-plangintzaren eta jabetze-plangintzaren helburu propioak bereizten ditu berriz : « Status planning is an effort to regulate the *demand* for given verbal resources whereas acquisition planning is an effort to regulate the *distribution* of those resources » (1989 : 120).

Ez dakit argudioak hain onak diren, « konbentzigarriak » diren. Azkenean zein dira corpus-plangintzan edo status plangintzan sartzen ez diren hizkuntza-ikaskuntza eta irakaskuntzaren, hizkuntza-jabetzearen alorrak ? Gorago azpimarratu dut hezkuntza status-plangintzan sartzen dela, hizkuntzaren funtzio bat dela. Cooperek ere William Stewarten

educational funtzioa aipatzen du zerrendatzen dituen hizkuntza-funtzioetan (1989 : 108). Hizkuntza irakasgai izan dadilako eraman den lana corpus-plangintzan sartzen da ; irakasgaien lexikoa sortzea, pedagogia tresna, ikasmateriala sortzea corpus-plangintzan sartzen dira. Cooper bera ohartzen da : « Determining media of instruction for school systems is perhaps the status-planning decision most frequently made, the one most commonly subject to strong political pressures » (1989 : 109). Badakigu hezkuntza eta bereziki hizkuntz(ar)en irakaskuntza, nahiz haurrei, nahiz helduei, hezkuntza-politiken, hizkuntza-politiken alor garrantzitsua bilakatu dela, gero eta gehiago Munduko herri guzietan, nahiz mendebaldekoetan nahiz ekialdekoetan. Eta irakaskuntza hizkuntza gutxituen aldeko kudeatzen diren politiken tresna garrantzitsuena bilkatu da ere, hizkuntza gutxitu hoiengatik berreskuratzeko.

II.4. Bi edo hiru plangintza alor ? Laugarren atal bat ?

Bere *Ahuldutako Hizkuntza Indarberritzea : teoriak zer dio ?* artikulu gotorrean Mikel Zalbidek beste laugarren atal bat emendatu du, beste « hurbilbide » bat bere hitzetan, *community fostering* delakoa. *Community fostering* da « hizkuntza ahulari belauneko belauneko iraupen-bidea bermatzea eta hiztun-elkarteari bere neurriko esparru berriak zabaltzea » (Zalbide, 2003). Fishmanen *Reversing Language Shift* modeloari lotua da (RLS, Fishman 1991, 2001). RLS hori « hizkuntza indarberritzea » euskaratu du Zalbidek, HINBE sigla ematen duena. « Hizkuntza-lerrakuntzaren alderantzikitzea » edo « hizkuntza-aldaketaren alderantzikitzea » proposatu nuen³. Halere, itzulpen hobereana « hizkuntza-ordezkapenaren alderantzikitzea » da nire ustez, Euskalterm Terminologia Banku Publikokoa.

Orduan, bi edo hiru plangintza desberdin bereizi behar genituzke ? Eta zer pentsa laugarren hurbilbide horrez eta non kokatu ? Azkenean iduritzen zait « hiztun, idazle, entzule, irakurle berri sortzea » (Cooper, 1989 : 33), hots hizkuntza-jabetzea, status-plangintzan sar / egon daitekeela, baina hortan hizkuntza gutxituen kasuan alor nagusia izanez. Hiztunik gabe hizkuntzarik eta hizkuntza-funtziorik ez da, teorikoa gelditzen da ; beraz hiztuna status-plangintzaren *sine qua non* baldintza da, hiztun erreala ala birtuala, ahalezkoa, hori baita plangintzaren helburua, xede-talde edo xede-norbanako gisa.

Fishmanen RLS modeloak ekintza-metodo bat eskaintzen du bereziki, diagnostik abiartzen dena eta beraz deskribapena baztertzen ez duena. Corpus-plangintza eta status-plangintza kontzeptuak baliatzen ditu ; aldiz ez du *acquisition planning* delakoarena erabilten⁴. Fishmanekin soziolinguistika egiazko giza-zientzia aplikatua bilakatzen da, hizkuntza mehatxatuen aldeko berreskuratzeko egitaraua ematen duena. « While many scholars complain about threatened and endangered languages in the world today, Fishman has turned his conceptualization of language maintenance and language shift into a program of social action » diote Ofelia García eta Harold Schiffmanek (2006 : 25).

Bere aldetik, Cooperek eskaintzen duen hizkuntza-plangintza triptikoa marko deskriptibo aski orokorra da, soziolinguistikaren kontzeptu orokor nagusietan sartzen dena. Noski bere balioa aztertzeko, neurtzeko, zehazteko da. Halere ez dut uste « corpus-plangintza, status-plangintza, eskuratzeko-plangintza » triptiko hori baztertzeko dela. Den bezala baliagarria dela uste dut, baliatzen duenak ala ez duenak zehatzen baldin badu zein den bere marko teorikoa hizkuntza-plangintzaz mintzatzen denean. Bi edo hiru plangintza hoiengatik lekuari buruzko eztabaidarekin soziolinguistika zientzia enpiriko, deskribatzaile agertzen zaigu. Ez da zientzia zehatza, ezagutza objektibo eta sistematikoa ematen baldin badu ere gero eta gehiago. Egiazko zientzia baino jakintza-arloa da, gero eta aurreratuago dena.

³ Bat *Soziolinguistika aldizkaria*, 67 : 83.

⁴ Fishmanek dio : « The other type of language planning, *corpus planning*, is probably of equal or greater vintage than the status planning (...) », *Do not leave your language alone* : 3.

Azken oharra : Cooper-ena Mackey-ren triptikoari hurbilduz, delako paralelismoa agertzen zaigu, paralelismo metodologikoa. Alde batetik corpus-plangintza (Cooper) eta bestetik hizkuntza (Mackey) baditugu, status-plangintza (erabilera, funtzioak hizkuntza-komunitatean, Cooper) eta taldea (Mackey) bestetik, jabetze-plangintza (hizkuntzaren ikastea, hiztun berri sortzea, Cooper) eta norbanakoa (Mackey) azkenik.

III. HIZKUNTZEN IKASTEAK : *MOTIBAZIOA / EZAGUTZA / ERABILERA* (TXEPETXEN MODELOA)

Txepetxen lanak, *Un futuro para nuestro pasado...* liburuak bereziki (1987), arrakasta handia lortu du Euskal Herrian eta, batez ere, « motibazioa / ezagutza / erabilera » triptiko famatuak. Txepetxek triptiko hori Commins eta Faginen 1954eko *Principles of Educational Psychology*-tik etortzen dela erraten digu (1987 : 109). Bereganatu du eta garatu. Jokatzeko modu hori ibilera arrunta da giza- eta gizarte-zientzietan. Ikerlariak ikusmolde, formula, kontzeptu bat beste bati hartzen dio, batzutan beste diziplina batean hartua ; birformulatzen du, bere definizioa aldatzen edo hedatzen du, bere aplikazio-eremua lekualdatzen du. Eta hola bere jakintza-arlorako tresna berri bat sortzen du.


III.1. « Motibazioa, ezagutza, erabilera » triptikoaren eztabaidatze hasiera

« Motibazioa / ezagutza / erabilera » triptikoa hizkuntzen ikaskuntzari aplikatzen zaio, nahiz ama-hizkuntzarenari (lehen hizkuntza), nahiz bigarren hizkuntzarenari. Hiruak « hizkuntzen jabetzearen eta ikastearen baldintzak » dira (*las condiciones de adquisición y aprendizaje de las lenguas*, 1987 : 33). Beraz modelo horrek hizkuntza-jabetzea lehenik, baina ere irakaskuntza, pedagogia, elebitasuna ukitzen ditu, besteak beste.

Lehen hizkuntzaren ikaskuntza prozesua, Txepetxen arabera, fase eta eragiketa hoi bitartez garatzen da eta ordena honetan : erabilpena → ezagutza → motibapena. « El niño comienza a hablar cuando empieza a usar el idioma » esaten digu Txepetxek (1987 : 38), « el aprendizaje lingüístico natural consiste así en un recorrido que avanza desde el uso hasta la motivación » (1987 : 43).

Bigarren hizkuntzaren ikaskuntza, aldiz, prozesu horren bitartez garatzen da Txepetxen ustez : motibapena → ezagutza → erabilpena.

Beste artikulua batean saiatu naiz erakusten ibilbide (*recorrido*, Txepetx 1987 : 38) edo zirkuitu (*circuito*, 1987 : 43) bat baino hiru polo elkarreragileko egitura zirkularra litzatekeela (*Bat*, 67 : 81-82). Hiru eragile horiek bata bestearekin harremanetan direla azpimarratu dut eta beraz, holako eskema genukeela. Hizkuntza-ikaskuntza mota denari aplikagarria zaie (lehen, bigarren hizkuntza izan dadin, edo gehiago).



Saiatu naiz erakusten ere nola lehen hizkuntzaren ikaskuntzaren kasuan « erabilpena → ezagutza → motibapena » prozesua ez osoa zela eta nola beste fase bat, « murgiltzea », gehitu behar daitekeen. Murgiltze fase hori beharrezkoa da eta besteak baldintzatzen ditu, lehenbiziko etapa da. Murgiltzerik gabe haurra ez da mintzatzen hasiko. Bere gurasoak, ingurune linguistikoa imitatu nahi ditu. Murgiltzeak motibapena baldintzatzen eta bermatzen du. Murgiltzeak mintzatzeko gogoia eragiten du, mintzatzeko iturburua da. Era batez, familiako testuinguruan, murgiltzea bera da motibapena. Eta beraz lau fase, lau aldagai, lau

eragile genituzke : murgiltzea lehenik, motibapena, ezagutza eta erabilpena ; edo, bederen, lehen aldagai hori besteen *sine qua non* baldintzatzat eman beharko genuke⁵.

III.2. « Motibazioa, ezagutza, erabilera » triptikoa hizkuntza-plangintzetan Euskal Herrian

« Motibazioa, ezagutza, erabilera » modelo hori, erran dudan bezala, biziki arrakastatsu izan da Euskal Herrian eta oraino ere erabilia da hizkuntza-plangintza ekintza desberdin batzutan. Txepetxek hiru oinarritzko eragile horiek (*los tres factores básicos*, 1987 : 35) hizkuntza jabetzeari eta hizkuntza ikasteari aplikatzen baldin bazaizkie ere, testuinguru desberdinetan erabiliak dira. Hona hiru adibide.

2000an Etxabarriko (Bizkaia) EIKA Koop enpresak euskararen erabilera bultzatzeko plana martxan jarri du. « Motibazioa, erabilera, ezagutza, hiru faktore horietan oinarritzen da EIKAko Euskara plana. Hizkuntza bizia eta BIZIRIK nahi dute⁶. Horretarako motibazioa, erabilera eta ezagutza indartzeko eginbeharrak arautzen dituzte » erraten da (Soziolinguistika Klusterra, 2007 : 4). Hizkuntzaren bizia enpresan hiru eragile horietan oinarritzen dela erraten da (*ibid.*), eta honela hizkuntzaren ikastea eragiteko ordez Txepetxeren teorian bezala, hiru faktoreak euskara enpresa batean hizkuntza baten erabilera bultzatzeko erabiliak dira.

Bigarren adibidean, aski konparagarria, ohartzen gara Txepetxeren hiru eragileak erabiliak direla ere, baina beste era batez, beste « programa » batzuen artean. 2003an Elgoibarko (Gipuzkoa) IMH, Makina Erremintaren Institutuak hizkuntza-plan bat abiatu du. Plana « zazpi programatan » oinarritzen da : « erabilera, ezagutza, motibazioa, erakundetzea, komunikazioa, finantzazioa eta jarraipena. Programen helburu nagusia bakarra da: euskararen erabilera sustatzea. Helburu nagusia lortzeko, ordea, sail bakoitzari dagozkion azpi-helburu xumeagoak beharrezkoak dira euskara planak modu egokian aurrera egingo badu » (Soziolinguistika Klusterra, 2009 : 8). Beraz hemen erabilera, ezagutza eta motibazioa ez dira eragiletzat hartuak, baina helburu gisa, indartzeko diren sailak euskararen erabilera erakundean bultzatzeko. Nire ustez, triptikoaren azken erabilera hori egokiago da teoriaren eta metodologiaren aldetik. Erakundearen hizkuntza-plangintzaren oinarri metodologiko gisa hartua da, beste alor (*programa*) batzuen artean, euskararen erabilera bultzatzeko xedearekin.

Hona orain hirugarren adibidea. 2006an Ipar Euskal Herriko Euskararen Erakunde Publikoa (EEP) sortu berri den egitura publikoak triptiko hori bere hizkuntza-politika proiektuaren printzipio orokorretan hartu du, oinarri teoriko gisa⁷. Triptikoaren aurkezpena « Hizkuntza politika proiektuaren eraikitzearen oinarrian dauden printzipio orokorrak » eranskinean emana da. Baina beste printzipio teorikorik ez da proiektuan, triptikoa da erreferentzia bakarra. Egia da euskararen irakaskuntza eta lehen ikaskuntza EEP-ren proiektuaren lehentasuntzat emanak direla ; proiektua *Hizkuntza politika proiektua* « *Hiztun osoak helburu, haur eta gazteak lehentasun* » deitua da. Proiektuaren oinarritze teorikoaren gutxiegitasuna agertzen zaigu, oinarritze hori Txepetxeren hizkuntza-ikasteko triptikoari mugatua baitzaio. Aldiz Fishmanen ekarpena, adibidez, ez da aipatua aldi honetan. Jakin behar da 2000an, lehen aldikoz, dokumentu publiko batean haren izena agertu zela, Hitzarmen berezian (*Convention spécifique Pays Basque 2001-2006*). Dokumentu honen 8. orrialdean erraten da : « Euskal Herriko Antolaketa eta Garapen Eskemaren elaborazioaren kariaz 1997an, euskara berreskuratzeko plana eraikitzeke Joshua Fischman-en (*sic*) aldarrikapenak

⁵ Txepetx bera ohartzen zen : « El niño aprende un idioma en la medida en la que se ve expuesto a un uso abundante del idioma a lo largo de un periodo suficiente de tiempo (...) En la adquisición primaria del lenguaje el uso lingüístico empieza como uso *recibido*: como lenguaje escuchado a los adultos y a otros niño » (1987 : 53).

⁶ « Bizirik » hitza maiuskulaz emana da testuan.

⁷ Ikus printzipio orokorrak 2006ko urriaren *Hizkuntza politika aitzinproiektuaren* gehigarrian eta 2007ko azaroaren 8aren *Euskararen Erakunde publikoaren aurkezpena* : 13-14. or.

baliatu izan dira »⁸. Euskal Herriko Antolaketa eta Garapen Eskema hori bi dokumentutan aurkezten da, 1996ko « Norabide orokorrak » testuan eta 1997ko « Programmes opérationnels » delakoan⁹.

Aipatu ditudan hiru hizkuntza-plangintza proiektu hoietan argi da euskararen erabilera dela helburua, nahiz enpresa, nahiz erakunde edo eskualde batean. Ikastea da, dudarik gabe, baliabidea ezagutza sortzeko edo indartzeko, erabilerarekin batera. Baina erabilera ez da ezagutza ; azkena lehenaren *sine qua non* baldintza dela erran dezakegu. Ondorioz, eta analisi hau zuzen bada, triptikoaren arrazoi objektiboa desbideratua da.

Hemen ikusten dugu nola soziolinguista baten modelo teorikoak aplikazio konkretu bereganatzen duen eta nola modeloa ikerleak kokatzen duen lekutik at baliatua den.

IV. BESTE HIRU ALDAGAIKIKO MODELO GEHIAGO

Sarreran erran dut hiru elementu edo osagaietako eskematizio edo modeloak hedatuak direla soziolinguistikan. Hona beste bi gehiago¹⁰.

Hizkuntza-politiken hiru partaideak. Nozio hori Porcher-i eta Faro-Hanouni mailegaten diet. « Les trois pôles majeurs d'une politique linguistique sont le commanditaire, le prestataire et le destinataire » (2000 : 151) idazten dute. Nire nahia da modelo hori zahaztea, « polo »-ren ordean « partaide », « aktore » nozioak erabiliz. Hizkuntza-politiken parte-hartzaileak hiru direla erran dezakegu, hiru aktore ditugula hizkuntza gutxituen kasuan edo bi bakarrik, botere publikoa eta gizartea. Alde batetik elkarrekin, erakunde pribatuak egile / eragile direnak baditugu, bestetik botere publikoak komanditario / ordaintzaile direnak (eragile ere kudeatzen dituzten alor publikoetan, administrazioan eta hezkuntzan bereziki) eta, bistan da, gizartea onuraduna dena (egile da ere bai, hizkuntza biziartzen, erabiltzen edo, alderantziz, baztertzen, uzten baitu). Hiruen parte-hartzea beharrezkoa da. Bataren edo bestearen konpromisoa falta bada, hizkuntza-plangintzaren arrakasta zalantzan dago.

Ipar Euskal Herriko kasuan euskal elkarrekin akuilu paperaz gain bitarteko papera badute, gizartearen eta podere publikoen artekoa. Aitzindaritzan papera izan dute ere, euskararen aldeko lan egiten duten egitura batzuk sortuz, hizkuntza-plangintzaren eremuak idekiz. Duela gutxi botere publikoek hizkuntza-politika beregaindu dute Euskararen Erakunde Publikoaren koadroan, elkarrekin politika publikoaren eragileak bilakaraziz.

Bukatzeko nola ez aipa, eta hau da azken triptikoa izanena, nola soziolinguistika hizkuntza-berriari interesatu zaion, hiru berrak mota bereiziz sinkronian : **berria diastratikoa** gizarte-taldeekin korrelazioan direnak, **berria diatopikoa** lekuekin korrelazioan direnak eta **berria diakronikoa** adin-taldeekin korrelazioan direnak.

BUKAERA GISA

⁸ « L'élaboration du Schéma d'Aménagement et de Développement du Pays Basque en 1997 a été l'occasion de bâtir un plan de réappropriation de la langue basque en prenant appui sur les préconisations formulées par Joshua Fischman (*sic*) ».

⁹ « Proposatzen den analisi soziolinguistikoa aski motza zen, baina erran behar da lehen aldia zela dokumentu ofizial batean euskararen aldeko politikarako hausnarketa batzuk agertzen zirela » (Coyos : 83).

¹⁰ Eranskinean Euskararen Aholku batzordeko XXI. mende hasierarako hizkuntza politikaren oinarriak txostenean aurkitu ditudan hiru aldagaiekiko nozio, modelo edo irudikapenak ematen ditut (Oinarrizko txostena, 2008/04/29).

Artikulu honen helburu nagusia ez zen hiru zenbakiari buruzko fetixismo mota agerraraztea. Errealitate soziolinguistikoaren deskribatu eta ondotik esplikatu nahian, soziolinguistek modelo deskribatzaile edo teoriko sortzen dituzte. Aurkezpenean zehar ohartu gara modelo hoietan hiru aldagairekin asmatu direnak ugari direla.

Zer pentsa horrez ? Aurkakotasun bitarreko modeloak ez direla gai errealitate hori irudikatzeko ? Kasualitate osoa dela ? Balizko hirurako joera hori sistemen oreka egonkorren bileraren ondorioa litzatekeela ? Edo ez dakit zer ere ?

Hiru aldagairekiko modelo soziolinguistikoen garrantzitsuari buruzko galdera hori, esanahirik baldin balu, epistemologoaren eskuetan emateko litzateke.

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Cooper, Robert L., 1989, *Language Planning and Social Change*, Cambridge University Press, Cambridge.
- Coyos, Jean-Baptiste, 2008, Hizkuntza-politika Ipar Euskal Herrian: nondik nora? Ibilbidearen azterketa, *Bat Soziolinguistika aldizkaria*, 67, Andoain, Soziolinguistika Klusterra, 79-102.
- Euskararen Aholku batzordea, 2008ko apirilak 29, Oinarrizko txostena, *XXI. mende hasierarako hizkuntza politikaren oinarriak*, Eusko Jaurlaritza, http://blog.euskara21.euskadi.net/uploads/file/Oinarrizko_Txostena.pdf
- Euskararen Erakunde Publikoa, 2006ko abendua, *Hizkuntza politika proiektua « Hiztun osoak helburu, haur eta gazteak lehentasun »*, <http://www.mintzaira.fr/eu/hizkuntza-politika-proiektua.html>.
- Euskal Herriko Garapen Kontseilua, 1996, 4. atala Hizkuntz antolaketa (Norabide orokorrak, 1996/10/26), *Euskal Herriko antolaketa eta garapen eskema*, Baiona, polikopi, <http://www.lurraldea.net/bibliodocs/PB2010/schema.pdf>.
- Euskal Herriko Hautetsien Kontseilua, 1997, 4. batzordea, Hizkuntz antolaketa (Programmes opérationnels, 1997/03/22), *Euskal Herriko antolaketa eta garapen eskema*, Baiona, <http://www.lurraldea.net/bibliodocs/PB2010/schemaDO.pdf>.
- Fishman, Joshua A., 1991, *Reversing Language Shift. Theoretical and Empirical Foundations of Assistance to Threatened Languages*, Multilingual Matters, Clevedon/England.
- _____, 2001, *Can Threatened Languages be saved? Reversing Language Shift, Revisited: A 21st Century Perspective*, Multilingual Matters, Clevedon/England.
- _____, 2006, *Do Not Leave Your Language Alone - The Hidden Status Agendas Within Corpus Planning in Language Policy*, Lawrence Erlbaum Associates, Mahwah (New Jersey).
- García, Ofelia - Peltz, Rakhmiel - Schiffman, Harold, 2006, *Language Loyalty, Continuity And Change: Joshua A. Fishman's Contributions to International Sociolinguistics*, Multilingual Matters, Clevedon.
- Mackey, William F., 1976, *Bilinguisme et contact de langues*, Klincksieck, Paris.
- Porcher, Louis - Faro-Hanoun Violette, 2000, *Politiques linguistiques*, L'Harmattan, Paris.
- Sánchez Carrión, "Txepetx", Jose Maria, 1987, *Un futuro para nuestro pasado: claves de la recuperación del euskara y teoría social de las lenguas*, San Sebastián.
- Soziolinguistika Klusterra, 2007, *Euskararen Normalizazio Kasu Aurreratuak - EIKA, langune euskalduna*, elehirudun, Soziolinguistika Klusterra, Andoain.
- _____, 2009, *Euskararen Normalizazio Kasu Aurreratuak - IMH, Makina Erremintaren Institutua*, elehirudun, Soziolinguistika Klusterra, Andoain.
- Zalbide, Mikel, 2003, *Ahuldutako Hizkuntza Indarberritzea : teoriak zer dio ?*, 2003/07/07, www.erabili.com.

ERANSKINA : XXI. MENDE HASIERARAKO HIZKUNTZA POLITIKAREN OINARRIAK TXOSTENA

Euskararen Aholku batzordearen 2008ko apirilaren 29 ko XXI. mende hasierarako hizkuntza politikaren oinarriak « oinarrizko txostena » aipatu nahi nuke orain. Testu hortan ere ohargarria da nola hiru osagarrirekiko nozio, kontzeptu, ideia, irudikapen erabiliak diren. Hemen aipatuko baizik ez ditut, aztertu gabe.

— Hizkuntzaren biziberritzearen hiru eragileak: « Soziolinguistikaren etxean onarpen zabala duen printzipioaren arabera, ondorengo hirurok dira hizkuntza baten –edozein hizkuntzaren– biziberritze prozesuaren arrakasta bermatzeko nahitaez gertatu behar diren faktoreak: lege-marko egokia, hizkuntza normalkuntza ahalbidetzeko behar bestekoa izango dena; hizkuntza politika eraginkorra eta baliabideak; herritarren atxikimendua eta hizkuntzaren aldeko jarrea eta konpromisoa » (23. or.).

— Hizkuntzaren aldeko hiru jarrerak: « Marko legalak hiru oinarri nagusi ditu: • Eskubide linguistikoen aitortzea. • Progresibotasuna: ezin da dena kolpean egin; han-hemengo egoera ez da homogenoa • Ez neutraltasuna: euskararen normalizazioa du helburu » (27. or.).

— Hizkuntzaren etorkizuneko hiru oinarriak : « Euskararen etorkizunerako gogoan izatekoak: • Erabilera da etorkizunaren giltzarria, baina Legeak ezin du bermatu, hiritarrek baizik. • Euskara sinbolo bat bada ere, hizkuntza da ororen gainetik • Lehenespenen politika bat sustatu beharra dago » (33. or.).

— Erabileraren hiru baldintzak : « Baina erabilerak, ezagutzaz gain eta aldi berean, gutxienez beste bi baldintza ere betetzea du: erabiltzeko borondatea eta erabilera aukera » (36. or.). Hiru zatiko baldintzapen hori errepikatua da 43. orrialdean beste era batez, gaitasunak ezagutza ordezkatzeko duela : « Ezinbesteko hiru baldintza etorkizunari begira: • Euskara erabiltzeko gaitasun izatea • Euskara erabiltzeko aukerak izatea • Euskara erabiltzeko borondatea izatea ». Azken triptiko hori Txpetxenari aski hurbil zaio, berdina ez izanik ere.

— Txostenaren egileen araberrako hiru « mugak » : « Ditugun mugak: • Euskararen beraren errealitatea • Euskarak gizartean duen pisua • Euskal gizarte osoaren borondate eta ahalmena » (42. or.).

— Hizkuntza politikaren alderdi politikoa : « Hizkuntza politika demokrati batek: • Ahulena babestu behar du • Ezagutza bermatu behar dio ezagutzen ez duenari • Kohesio tresna bihurtu behar ditu hizkuntzak » (42. or.).

— Zergatik ikasi ez duten hizkuntza haien seme-alabek ikasi dezatela nahi dute gurasoek : « Prozesu horrek agerian jarri ditu hiru gauzok uztartzearen eraginkortasuna: gurasoen eskubidea hizkuntza aukeratzeko haien seme-alabek hezi daitezen, eskola-erkidego bakoitzaren hezkuntza-proiektuan jasotako hizkuntza-helburuak, eta ofizialak diren bi hizkuntzetan derrigorrezko eskolaldiaren amaieran lortu beharreko gutxieneko komunikazio-gaitasuna ».

Uf ! Txosten horren egileek bederatzi aldiz eta zazpi nozio, kontzeptu edo helburu desberdin irudikatzen dituzte hiru zatiko modeloak erabili dituzte.